

Hipoteka-ekoizpenean **bilakaera positiboa** lortu zuen erakunde bakarretakoa izan zen

## **Kutxabanke harpidetutako hipotekak % 2,5 hazi ziren iaz**

- **Guztira 3.172 milioi euro harpidetu zituen hipoteka kreditu berrietan, 2022an baino 80 milioi gehiago**
- **Interes tipoen igoera nagusi izanik, hipoteken % 73 mistoak izan ziren, Euriborrean oinarritutako edo tipo finkoko maileguen kaltetan**
- **Datu horiei guztiei esker, Taldeak merkatu-kuota irabazten jarraitu du merkatu guztietan. Euskadin hipoteka-kreditu guztien % 41 inguru bereganatu du eta Espainian % 8**

**2024ko urtarrilaren 29an.** Iaz urte osoan zehar hipoteka berri gutxiago sinatu ziren oro har. Hala ere, Kutxabanke 2023an sinatutako hipoteka-kredituak **% 2,53** handitzea lortu zuen, guztira **3.172 milioi euro**, 2022. urtean baino **80,5 milioi** gehiago.

Gainera, iaz finantza-erakundeak harpidetutako hipoteken **batez besteko balioa % 4,9** hazi zen. Hain zuzen ere, **168.000 eurotik gorakoa** izan zen, eta 2022an **160.000 eurotik gorakoa**.

Datu hauek aintzat izanik, finantza Taldea hipoteka-mailegu berrien ekoizpenean **gehien hazi zen bankuetako** bat izan zen Estatu osoan, eta **hipoteken ekoizpen positiboa** lortu zuen bakanetako bat.

Hazkunde horren beste ondorioetako bat **merkatu-kuotaren** hazkundera izan zen.

2023. urtearen amaieran, finantza Taldeak Euskadiko merkatu-kuotaren **% 41** inguru bereganatzen zuen, iazko urte hasieran baino 5 puntu gehiago. Kutxabank aritzen den gainerako lurraldeetan ere gauza bera gertatu zen eta merkatu-kuota **% 8**raino igoarazi zuen Espainia osoan.

### **Hipoteka mistoen gorakada nabarmena**

Emitza konparatibo on hau hipoteka-kredituentzat erabat kontrakoa izan den testuinguruan lortu da, batez ere interes-tipoen igoerarengatik eta ziurgabetasun ekonomikoaren ondorioz.

Izan ere, 2023an Euriborra azken hamarkadako mailarik altuenetara iritsi da, eta horrek merkatuak eskatzen duen hipoteka-produktu motan ere aldaketa nabaria eragin du.

Kutxabanken kasuan, **hipoteka mistoen** aldeko apustua egin duten erabiltzaileek hazkunde esponentziala izan dute. Kutxabankek 2023an harpidetutako mailegu berri guztien % **73 hipoteka mistoak** izan dira. Egoera honek zerikusi txikia du duela urtebete gertatzen zenarekin, **tipo finkoko** maileguak geroz eta ohikoagoak ziren unearekin, alegia.

Kutxabankek merkatuko hipoteka eskaintza erakargarrienetakoa du. Merkatuaren ezagutza zabala du eta kudeatzaileen hurbiltasunak lehen mailako zerbitzua borobiltzen du. Tresna digitalak, gainera, geroz eta erabakigarriagoak dira. Horrela erakusten du iaz sinatutako hipoteka guztien ia % 60 online tresnen bidez abiarazi izanak.

### **Kutxabanki buruz**

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.